

## Heriotza Nilo ibaian



### **Heriotza Nilo ibaian**

Jatorrizko izenburua: *Death on the Nile*

Egilea: Agatha Christie

Itzultzailea: Xabier Aristegieta

Argitaratze urtea: 2007

Argitaletxea: Igela

MIKEL GARMENDIA

Ondo merezia du Agatha Christiek "hilketaren erregina izengoitia. Izan ere laurogei bat eleberri idatzi zituen Edgar Allan Poek XIX. mendean hasitako polizi eleberrien generoan. Genero hau aldatuz joan da denborarekin eta polizi eleberrien egile klasikoetan –hortxe sartuko genuke Agatha– agertzen ez ziren ezaugarriak bereganatu zituen Chandler eta Highsmith bezalako idazleen eskutik. Beste alor batzuetan ezagun egindako hainbat idazle ere hurbildu zaio generoari: Graham Green, Alain Robbe-Grillet edo Manuel Vazquez Montalván bera, Pepe Carvalho sortu zuena.

Izan da A. Christieren eleberrien literatur balioa zalantzan jarri duenik eta eztabaida ere piztu da Erresuma batuan Agatharen literaturgintza eskolan irakatsi behar ote den ala ez. Eztabaida ez da berria. Bi hitzetan laburtzeko, "kontsumoko" edo "entretanimendurako" literatura izatea da, gutxi gorabehera, batzuk egosten diotena. Eztabaidak eztabaida, ukalezina da Agatha Christieren eleberriak irakurriz zaletu dela hainbat eta hainbat jende literaturarekin. Zerbaitengatik izango da.

Balore kontserbadoreak islatzen dituzte bai narratzaile orojakileak berak baita pertsonaia nagusiek ere (hala nola Poirot detektibe famatuak). Pertsonaien arteko giroa eta harremanak ere halakoxeak. Sortzen den suspense eta intriga giroa da, ordea, gailentzen dena. Horrek harrapatzen gaitu Christieren eleberrietan: pista faltsuak, aukera anitzak, nortasun bikoitzak...

Hasieran kosta egiten da eleberriko pertsonaia-sare korapilatsuan nor den nor ondo bereiztea, baina kontakizunean aurrera egin ahala –eta liburuaren hasieran daukagun pertsonaien zerrendari esker–, hori ez da eragozpen izango irakurketa bizi-bizia egiten jarraitzeko. Halakoxeak baitira, Agathazaleek berek aitortuta, "hilketen erreginaren" eleberrien irakurketak, "irentsi egiten dira" eleberriok sortutako jakin-minak eraginda.

Esku artean dugun *Heriotza Nilo ibaian* eleberrian Linnet andereñoa, oinordekotzaz egundoko ondarea jaso duen emakume aberatsa, Simonekin ezkonduko da, Jackie bere lagun minaren senargai denarekin, hain juxtu. Minduta, Jackie atzetik segika joango zaio bikoteari Nilo ibaian zehar egingo duten eztei-bidaian. Bidaia horretan, itsasontziko bidaiari guztiak izango dute Linnet hiltzeko motiboren bat –Hecules Poirot detektibeak eta Race koronelak izan ezik–. Linnet hil egingo dute eta Poirotek hiltzailea aurkituko du, baina hori baino lehen beste hainbat krimen gertatuko dira bidaian zehar.

Esan bezala, liburua irakurtzen hasi eta, behin pertsonaien sarea identifikatuxea izan orduko, ez dugu bakerik izango eleberriaren amaierara bitarte. Xabier Aristegietak eman digun itzulpenak ez du inolaz ere oztopatzen irakurketa bizi-bizi hori, guztiz alderantziz baizik. Inongo behaztoparik gabe kurritzen du euskarazko bertsioak, fresko eta arin.